

noaua



**Orbeldi Dantza Taldea,
Inauterien atarian:
“Jendea plazara
bueltatzea nahi dugu”**

**Larunbat honetan
Maddi, Elene eta Odolaren
Mintzoa Aginagako Eliza
Zaharrean**




Argazkia: Udarregi Ikastola

**Jaietako girlanda berriak bidean dira
DBH2ko ikasleak: “Denetariko oihalak biltzen
ditugu: galtzak, soinekoak, alkandorak...”**

GOLDWELL
ELUMEN

ileapaindegi



Kolorazioetan teknika
berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

antenas
Telemar

ATEZAIN EDO BIDEOATEZAIN DIGITALAK
OBRARIK GABE!



6855 zenb. telekomunikabide erregistroan
elkano kalea 13 HERNANI 943 55 33 99 - 629 12 13 55



HARTU
HITZORDUA!!!



Ate Irekiak Martxoak

9



Erdi Maila: 17:00
Goi Maila: 18:00



943 364600



adkomunikazioa@lhusurbil.eus

www.lhusurbil.eus

Albisteak iruditan

Bi greba egun Osakidetzan

ELA, LAB, SATSE, CCOO eta UGT sindikatuak lehen arreta zerbitzuan greba eguna deitu dute otsailaren 25erako, “gure osasun-sistema publikoa etengabeko eraso jasaten” ari dela salatu eta “Osakidetzak dituen arazo larriak konpontzeko”. Osakidetzak eta Osasun Sailak “pauso bakar bat ere” ez dutela eman ohartaraziz, manifestazioak deitu dituzte hiriburuetan hilaren 26an (Donostiakoa 12:00etan Bulebarretik) eta greba orokorra Osakidetzara osoan hilaren 28an.

“Osakidetzako langileei ez ezik, herriarrei, gizarte mugimenduei eta gainerako erakundeei ere parte hartzeko deia egiten diegu”, sindikatuak aditzera eman dutenez, “osasun publikoa, uni-



Sindikatu nagusiak batu dira, “kalitatezko osasun publikoaren eta langileen eskubideen alde”.

bertsala, doakoa, kalitatezkoa eta herriar guztientzat irisgarria izango dena

defendatzeko beharrezkoa den aliantza elikatzen jarraitzeko”.

Laburrean

Intzidentzia beherantz

Oraindik oso altua izan arren, 1902,35era murriztu da koronabirusaren intzidentzia Usurbilen. 10 kasu berri baino gutxiago zenbatzen ari da Osasun Saila egunotan. Urtarrila 681 kasu berriekin agurtu genuen, otsailaren 13ra arte 90 kasu izan ziren.

Neurriak, bertan behera

Eusko Jaurlaritzak orain arte izan ditugun neurri murriztaile gehienak bertan behera uztea erabaki du. Eremu itxietan musukoak izaten segitzen du derrigorrezkoa. Udal instalakuntzetan ezarriak zeuden mugak ere eten ditu Udalak.

Azken ostirala

Sarek deituta euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko elkarretaratzea egingo da datorren astean, otsailaren 25ean ostiralarekin, ohi bezala, iluntzeko 20:00etatik aurrera Mikel Laboa plazan.

noaúa

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaúa.eu /// www.noaúa.eu
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaúa.eu

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaúa.eu



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

Euskal Herreria!



Imanol Ubeda

Kafe Garaia atala abiatu eta gutxira konturatu ginen. Gonbidatu denek ezaugarri berdina zuten komunean: euren jardun profesionalen nabarmendu dira eta, horretaz gain, herri mailako talde edota elkarteetan ari dira musu-truk lanean.

Joxe Mari Izeta psikologoa da ogibidez, baina gehienok GuraSOSekin lotzen dugu bere jarduna. Gizakia Helburu elkartearen aritzen da lanean. Gizartearen –eta baita orriotan ere– ikusezin diren kontuez aritzeko aukera ederra eskaini zigun.

Julen Arteaga arkitekto gaztea Kabieneko sortzaileeko bat da eta Gure Esku Dago taldeko kide. Usurbildarren aldetik behin eta berriz jaso izan duten erantzuna nabarmendu zuen.

Iñaki Mujikak Lanbide Eskolako etapa guztiak ezagutu ditu. Hezkuntzan zein administrazioan. Jubilatuta egon arren, saltsa askotako perrexila izaten segitzen du. Zumarte Musika Eskolako zuzendaritza batzordean 32 urtez aritu zen eta Txistulari Taldeko beternoetako bat da. Hau ere politikan ibilitakoa da, “plenoak goizeko 01:00ean bukatzen ziren garaikoa”.

Elkarrizketa denetan pandemia izan da hizpideetako bat. Saihestezina izan da. Batzuk lehen lerroan aritu behar izan dute eta euren lekukotza jaso beharra genuen.

Kafe minez



Kafe Garaia bideo-elkarrizketa sortak une gogoangarri ugari utzi dizkigu.

DYakoak, esate baterako. **Joxepo Artola** DYako presidenteordeak azaldu zigun moduan, “gure boluntarioek dena eman dute pandemian”.

Joxerra Furundarena medikua da eta osasun arloko profesionalentzat garai zailak izan direla adierazi zigun. “Erronka ikaragarri bat izan da denontzat”.

Ibon Alberdi apaizak Usurbilgo Caritasen lana nabarmendu zigun. Erakunde honen inplikazioa ordea, pandemia hasi baino lehenagokoa da. Kafe Garaian aipatu zuenez, “Caritasek 40 familia atenditzen ditu hilero Usurbilen”.

Pandemia lehertu berritan, txerto bila abiatu ziren ikerlariak. Eta hala jakin genuen herrian ere badirela horretan ari diren profesionalak. **Irati Miguel** EHU unibertsitateko Genomika zerbitzuko goi teknikaria da eta Novaseq6000 izeneko gailuaren onuren berri eman zigun. “Tresna honekin osasungintzan emango den urratsa izugarria izango da”.

Harremanetan, sozializazioan... Azken bi urteotako amesgaiztoak beste arlo askotan eragin du. **Malen Azpiaz** Kafe Tertulia talde feministako kideak aipatu zigun moduan, “gazteak oso kriminalizatuak izan gara”.

Heziketan ere izan du bere isla. Hausnarketa interesgarriak utzi zizkigun **Oidui Usabiaga** EHUko irakasleak.

Maiz esan den moduan, kultura sektorea oso kolpatua izan da pandemia garaian eta horri buruz asko dute esateko **Ixak Arruti** musikariak eta **Ugaitz Agirre** idazleak.

Kaferako tartearen aitzakian, etxe barrura begiratzeko denbora ere hartu dugu. NOAUA herri hedabide bat izanik, gure jarduerari buruzko analisisen bila jo dugu. **Ainhoa Azpirotz**, **Idoia Torregarai**, **Olatz Altuna**, **Joxe Mari Irazusta** edota **Arantxa Manterolak** ondo gogoan izateko moduko ekarpenak egin dizkigute.

Juanjo Allurrek Siadeco Ikerketa Elkartearen gidatzen du eta iraga-

neko nahiz gaur egungo gako ugari eskaini dizkigu. Tartean, Hurbilgorentzat egindako lanaren inguruko hausnarketa interesgarriak.

Ildo berekoa izan zen **Maialen Iñarrarekin** izan genuen solasaldia. Euskaraldiaren aitzakian Usurbilen osatu den sareari buruzko xehetasunak aletu zizkigun.

Txarrean, izan da pandemia betean jubilatzeak aukera izan duenik. **Mariaje Imaz** da horietako bat. 20 urterekin etorri zen Donostiatik Udaregi ikastolara “eta 63 urte bete arte hemen aritu naiz lanean. Esker oneko hitzak besterik ez dauzkatz”.

Jarduera politikoa hain gutxietsia dagoen garai hauean, Usurbilen ordezkartuta dauden hiru alderdietako bozeramaileekin batu ginen. Pandemiaren okerrean, bat egin zuten hainbat alditan.

Hain herri txikia izateko, puntako kirolarien kabia agortezina da Usurbil. Horietako batzuk gonbidatu genituen Kafe Garaia-ra. **Aitor Aranguren** pilotaria, **Jon Irazustabarrena** atezaina eta **Esther Arrojeria** eskubaloi jokalaria. Azken honen hitzak kirolari denek sinatzeko modukoak dira: “Kirol partidak ikuslerik gabe ez dira gauza bera”.

Kafe Garaia-ko bideoak, zorionez, noiznahi ikusteko moduan daude: noaua.eus/bereziak/kafe-garaia

Imanol Ubeda

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

ZENDOIA ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·karta ·oilasko erreak, pizzak..

JASOTZEKO EDO ETXERA ERAMATEN DUGU!
Zubiaurrena 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Patxi
Patxi Iñaretxea
·bazkariak EGUNERO
·afariak: OSTIRAL/LARUNBATA

☎ 943 362725
☎ 688 690 361

Beterri Saretuz ekimenaren bilkura

Beterri Saretuz ekimenak aurtengo ekintza plana eta helburuak aurkeztuko ditu ostegun honetan, Usurbilen. Eskualde mailako egitasmo hau 2019an sortu zen Beterri-Buruntzako enpresa eta eragileen artean ekosistema parte-hartzaile bat sortzeko helburuz.

Eskualdeko enpresa, eragile eta erakunde ugari biltzen dituen Beterri Saretuz ekimenak urrats gehiago emango ditu aurtun. Ostegun honetan, hilak 17, 9:30etik 12:00etara Usurbilgo udaletxeko areto nagusian emango dio ofizialki hasiera urteari, eta ekintza plana eta aurtengo helburuak aurkeztuko dituzte bertan.

Ekintza planaren aurkezpena

Sarea egituratu eta interkoope-razio praktikak martxan jar-



Usurbilgo udaletxeko areto nagusian batuko dira ostegun honetan, goiz partean.

BETERRI SARETUZ

“Sareko kideen artean dekalogo bat osatzeko asmoa dugu”

zteza da atzemandako erronka horietako bat. Hala, ostegune-

ko saioan ekintza plana aurkeztuko dute.

Horrez gain, sareko kideen artean dekalogo bat osatzeko asmoa ere badute eta ekimenaren parte direnen arteko esperientziak trukatzeko jarraituko dute.

Informazio gehiagorako:

■ E-maila:

beterrisaretuz@gmail.com

■ Kontaktuak:

Beterri-Buruntza Udalak:

688 84 95 40.

TaPuntu:

691 16 64 09.

Ika-mika

Eukaliptoak kaltea dakar gure lurraldera

Australiatik ekarritako eukaliptoak hazkuntza azkarrekoak dira; lehen mozketa 16 urtera izaten dute, eta birsortze ahalmenari esker, bigarren eta hirugarren mozketak 20 urteko muga burutzen dira. Eukaliptoak lur-zoruak pobretzen ditu erosioa areagotuz, erreketako uretan zein lurpeko ur-putzuetan kutsadura eragiten du, ur asko behar duelako lurrak idortzen ditu, ... Ebidentzia zientifikoak asko dira. Eukaliptoaren hostoak toxikoak direnez, biodibertsitatea erabat kaltetzen dute. Eta askoz ere gehiago: hostoetan daukan olioak suteak zabaltzea errazten du, koipe horrek lur-zoruak iragazgaitzago egiten ditu uholde arriskua handituz, matarrasaz moztuta lur organikoaren gale-
ra larria eragiten du,...

Eskerrak Irisasi mendian ez dagoen eukalipto landaketarik, bestela, ez genuke Erroizpeko ura edaterik izango.

Eukaliptoak zuhaitz bikaina da bere jatorrizko lurraldean, eta giza espekulazioak inbaditzaile bihurtu du Australiako basoetatik kanpo.

Portugaldik hasi eta Gipuzkoarainoko itsas bazter guztian dago auzitan azken urteetan basoa baino zuhaitz-monolabore bihurtu den eukalipto, ingurumenarentzako dakartzan kalte ugariengatik. Horregatik daude, eukaliptoaren landaketak auzitan jarrita Euskal Herrian eta munduko beste hainbat lekutan.

Honen aurrean Euskal Herriko udalak ez daude geldirik. Batzuetan landaketak erabat debekatzeko erabakiak hartu dituzte (Itsasondo, Soraluze,

Mendaro, Atxondo, Amurrio, Legorreta) eta besteetan moralak ezarri dituzte (Ordizia, Antzuola, Oiartzun, Amezketta, Zumaia). Badira landaketak saihesteko bere esku dagoen guztia egiteko konpromisoa hartu dutenak ere (Zaldibia, Bergara, Hernani).

Hernaniko udalak eta Ereñotzuko auzo udalak, mendi lurrak erosteko erabakiak hartu dituzte, ikusirik Ereñotzu aldean pinua erabat moztu eta eukalipto landaketa handiak egiten ari direla; tartean bada, Kantabriako papergintzako enpresa bat ere.

Larrabetzuko udalak, herriarentzat balio ekologiko eta hidriko altuko lurrak identifikatu eta erosteko plangintza bat burutuko du.

Hainbeste sute pairatu behar izan dituzten Galizian, erabat

debekatu dituzte landaketa berriak 2025era arte. Portugalen ere, landaketak debekatuta daude 2017tik. Eta bada beste-lakorik ere: Asturiasko Xixongo udalak, bere jabetzako basoetan dituen eukalipto guztiak ebaki egingo ditu.

Ez dio axola zein urtaro den. Isiltasun iraunkorra nagusitzen da eukaliptoak hartzen dituen eremuetan. Basamortu berde bat eta mendi mutu bat. Zenbat arrisku ezkututzen diren monolaborantza honen isiltasunean.

Usurbilgo udalak ere, bere jarrera eta konpromisoa finkatzea eskatzen dugu, idatzi honekin batera udal erregistroan aurkeztu dugun mozioa onartuz.

Anerreka Ingurumen Elkarteak

Itxaro Borda idazlea: “Ene pertsonaiek lau gau zuritzen dituzte Usurbilen”

Hamazpigarrenean aidanez. Hortxe, euskarazko sorkuntza bultzatzeko Udalbiltzak sustatutako ‘Geuretik Sortuak’ izeneko egitasmotik sortu den argitalpena, film labur edota antzezlan sortarekin batera. Bi argitalpen izan dira. Izen hauxe jarri diote, Andu Lertxundiren ‘Hamaseigarrenean aidanez’ lanari gorazarre eginez. Kasu hartan, “protagonista herri txiki batera doa” eta hango kontakizuna egiten du, edizio lanaz arduratu den Dijitalidadea-ko ordezkari Gotzon Barandiarnekin hilabete hasieran Sutegin eginiko aurkezpenean zioenez.

Halaxe egin dute baita, argitalpen berri honetan parte hartu duten idazleek ere. “16 idazle, 16 herrietan bizitakotik, 16 kontakizun. Oso ahots desberdinak daude liburuan”. Baina denek lotune bat dute, “Euskal Herria kontatu nahi dute, lokaletik unibertsalera, imaginario berri bat sortu, euskaldunok euskaldunontzat”. Euskaldunok kontatutako “imaginarioetatik oso gutxi” jasotzen ari dira belaunaldi berriak eta kezka horretatik abiatu zen hain zuzen Udalbiltzaren ‘Geuretik Sortuak’ egitasmoa. “Gure imaginarioa euskaldunok asmatu eta



Itxaro Borda idazlea pozarren agertu zen Sutegiko ekitaldian, lehendik ere ezaguna zuen Usurbilen “hiru aste zoriontsu” igaro ostean.

ITXARO BORDA

“Hainbat eta hainbat istorio bildu nituen eta horren itzala agertzen da ene ipuinean”

kontatu behar diogu elkarri”.

Itxaro Bordaren lan askotan, “herriak eurak pertsonaiek dira. Zuek agertzen zarete kontakizun hauetan”, adierazi zien Sutegira joandakoei.

Transmisiorako tresna

Idazleek Euskal Herriko txoko ezberdinetan eginiko egonaldietatik, eta guneotan “herritarrekin izandako

harremanetatik” sortu dituzte kontakizunak. Tartean, Usurbilgo bi idazleek; Ugaitz Agirrek eta Yolanda Arrietak, hurrenez hurren Artziniegan eta Etxarri-Aranatzen bertan bizitako horretatik. Hala sortu dituzte Arrietak “Estekak” eta Agirrek “Izaro izeneko printzesa eta krimen zoroangarriaren tesia”. Itxaro Borda idazle baionarrari egonaldia Usurbilen egitea egokitu zitzaion, eta udalerrri honetan bertan sortu zuen “Gauak zuri Usurbilen”, hilabete hasieran Sutegitik bertatik aurkeztu zuen idazlana, Gotzon Barandiaran eta Usurbilgo Udaleko ordezkari Luken Arkarazo kultur arloko zinegotzia alboan zituela.

Herri bizitza abiapuntu

Santuenean bizi izan zen iragan uztailean hiru bat astez. “Usurbildarren beste egunerokotasun bat nuen, arras ezberdina eta horrek ere neurri batean eman dit halako arrotasun bat. Ni arrotza nintzen eta neurri batean arrotzen artera nindoan eta handik behar nuen ikusi Usurbil”.

Aste haietan bizitakotik abiatu zuen bere “Gauak zuri Usurbilen” kontakizuna. Laboaren Uztaileko zikloaren baitan iragan udan Ibon RG-k eta Enrike Hurtadok eskainitako kontzertu gauetik. “Ez dakigu nondik etortzen den narratzailea. Etortzen zaio Nadia izeneko pertsonaia. Errusiar kutsu hori atxiki nahi nion”, azaldu zuen Bordak Sutegin. Errusiar kultura maite duelako eta bere sortze lanak Fyodor Dostoyevsky idazlea omendu nahi zuelako baita. Idazle hau jai zuzenetik 200 urte bete ziren iaz. Bere kontakizunetako batean hain zuzen, “San Petersburgon bi pertsonaiek hainbat gau zuritzen dituzte. Ene pertsonaiek lau gau zuritzen dituzte Usurbilen”. Hortik ‘Gauak zuri Usurbilen’ izenburua. “Lau gau horietan beti hitzorduak egiten dituzte Mikel Laboa plazan”.

“Gida-liburu intimoa”

Usurbilgo leku zehatzetan ibiltzen dira bi pertsonaia hauek. Leku hauekin Oriaren bidez ura eta uztailean bertan Dema plazan ikusitako giza proben nahiz Andatzako mugarri historikoen eta Ingearren bidez harria batu nahi izan ditu Bordak. “Harri hori beti landua da. Beti badira bihotzak, eskuak, gorputzak, sentimenduak harri hori lan-

tzeko”. Ingegarreko harriaren kasuan, “langile ohi asko bertan Santuenean bizi dira. Asko dira Extremadura edota Galizatik lanera etorritakoak”.

Urari dagokionez, zioenez, “Usurbil ibaiari bizkar bizi dela entzun izan dut eta ipuin honetan alderantziz da”. Andatzan egoteaz gain, erria barrutik ezagutzeko aukera izan zuen, “zoragarria izan zen. Bat-ba-

tean mundutik kanpo ginen”. Baita herria ere, “berehala saiatu nintzen hiriko bizitzan sartzen”. Oroitzen duenez, “jende askorekin egon nintzen”, haietako bat baino gehiago joan ziren Sutegiko aurkezpenera. “Hainbat eta hainbat istorio bildu nituen eta horren itzala agertzen da ene ipuinean. Behar bada ene ipuinak gida bezala funtzionatzen ahal du,

gida-liburu intimo bat”. Kultur-etxean bertan idatzitakoa da. Bere kontakizuneari sartu dira “dantzan Usurbil, bere auzoak, iragana, nire ikuspegi subjektibotik”.

Sutegira joandakoei adierazi zienez, “lekuak ere ezagutuko dituzue. Irakurtzen gozatuko duzuela espero dut”. Eskerrak helarazi zizkien Udalari eta Udalbiltzari.

Uxue Alberdiren “Ibaia” kontakizuna eskuragarri duzue Sutegin

Sutegi udal liburutegian eskura dezakezue iaz kale-ratu zuen “Ibaia: Uxue Alberdik Usurbilgo hirigintza fabulatzen du” kontakizuna. Martxoaren 9an 19:00etan aurkeztuko du Sutegin, Sutegi udal liburutegiak udaleko Berdintasun Sailarekin elkarlanean antolatutako hitzorduan.

Kulturako udal dirulaguntzak hizpide

Aurtengoan kultur arloko bi udal diru-laguntza eskatzeko aukera izango da laster. Bat orain arte bezala kultur egitasmoak antolatzeko, bestea sorkuntzarako. Bi lerrooi buruzko argibideak emateko bilerak deituak zituen Usurbilgo Udalak otsailaren 16rako, aldaketak datoz eta. Deitzaileek ohartarazi dutenez, “azken urteetan, dirulaguntzen legea dela eta, hainbat aldaketa egin behar izan dituzte udaleko prozeduratan, eta oraindik ere urrats



Uxue Alberdiren solasaldia Berdintasun Sailak eta Sutegik antolatu dute.

UXUE ALBERDI

Martxoaren 9an Sutegin arituko da Usurbilekin lotuta dagoen fabulazio baten inguruan hizketan

batzuk egiteko ditugu”.


Aurrerantzean, “elkartek, pertsona juridiko gisa, telematikoki eskatu beharko dituzte dirulaguntzak, legeak hala eza-

rrita. Ondorioz, ziurtagiri digitalik ez duen elkarteak berau lortzeko tramitea egin beharko du Izenperen atarian”.

Horretarako, momentuz zehazteke duten formakuntza saio bat antolatzekoa da Udala laster. Laguntza hauetarako nahiz gainerako udal lerroetarako eskabideak aurkezteko epea otsaila amaiera aldera irekitzea aurreikusten du Udalak.

Peru Galbeteren lan berriaren aurrerapena

“Beiratu” izena du Peru Galbetek landu duen bere laugarren sortze lanak. “Superproduktzio bat ohituta nagoenerako”, egunotan egileak berak sare sozialen bidez aipatu duenez. Baina “oso pozik eta eskertuta nago”. 12 kantuz osaturiko lan berria apirilaren 1ean plazaratuko du bere osotasunean, baina aurre erosteko moduan eskuragarri jarri du perugalbete.bandcamp.com atarian.



Peru Galbetek “Ura” izeneko kantaren bideoklipa sareratu du.

“Ura” izeneko abestia eta kantaren bideoklipa ere sareratu du. Peru Galbete herritarrenak dira hitzak eta doinua. Paxkal Irigoienek ekoizpenean eta saxofoiarekin kolaboratu du. Herria eta herritarrak agertzen dira, Peruren eta bere gertukoaren bizitzako zenbait

pasarte iruditan.

12 abestiz osatutako lan berriak “bizitzari begietara begiratu (edo beiratu) nahi dio. Beiratzea ere ba delako gauza bati beiraren ezaugarri edo itxura ematea, eder mantendu dadin (nahiz eta hauskor). Eta ezinbestean, bizitzari berniz

kapa bat eman ohi diogu (hondatu ez dadin agian) diskoaren azaleko egurrek dutenaren antzekoa. Txikitari, lokartu aurretik sabaira begiratzen nuenean, begi pila bat ikusten nituen egur haietan niri begira. Eta gaur egun ere, ikusten jarraitzen ditut”.



“Aktibatzen” galdetegiak betetzeko azken egunak

Usurbilgo Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Plan Estrategikoaren inguruan Usurbilgo Udalak abiatutako partehartze prozesuaren baitan, galdetegi bat betetzeko aukera dugu otsailaren 18ra arte. Digitalki usurbil.eus/aktibatzen/galdetegiatarian. Paperean eskuragarri jarri dute baita Sutegin, Oiarde Kiroldegian eta udallexean.

“Sexberdinak” antzezlanerako sarrerak, agortuta

Otsailaren 2an sarrerak usurbilkultura.eus plataforman salgai jarri eta egunean bertan agortu ziren. Mireia Gabilondok zuzendu eta Aitziber Garmendia eta Telmo Irureta aktoreak protagonista dituen emanaldia, otsailaren 27an 18:00etan Oiarde Kiroldegian. Biek ala biek “beren bizipen afektibo sexualak azalduko dituzte inolako konplexurik gabe”.



Aitziber Garmendia eta Telmo Irureta aktoreak dira ‘Sexberdinak’ antzezlaneko protagonistak.

“Aritzeta eta Irubide arteko autobidea egiteko obrak hastear dira”

Aritzeta autobideko obrak duela 25 urte hasi zituzten. Autobidea hizpide izanda, garraiolariak kexu ziren garaian zituzten eskubide urriengatik eta greban zeuden. Obrek sortuko zuten katramilan, gainera, haiek izango ziren galtzaile nagusiak.


Pasa berriak ziren **Inauteriak** hizpide izan zituzten zenbaki horretan bertan. Politikan,

espetxe politikari buruz hitz egin zuen NOAUA!k **Patxi Añorga** preso ohiarekin. “Espetxea ahalik eta min handiena egiten saiatzen da”, zioen elkarrizketa hartan.

Ondoren, **Aritzeta** eta **Irubide** lotuko zituen autobideari buruzko xehetasunak eskaini zituzten erreportaje baten bidez. Errepide berriak sortuko zituzten arazoak eta abantailak aipatu zituzten, eta Udalean

egindako plenoan emandako botoak. **EAJ** eta **PSE-EE** alde agertu ziren 7 botorekin eta **HB** aurka 6 botorekin.

Kirol arloan **Yon Carbayeda** txirrindulariak elitean debuta egin zuen eta NOAUA!ri elkarrizketa eskaini zion bere ibilbideaz hitz egin eta etorkizuneko helburuak zehazteko. Ondoren, **Aitzaga Elkarteari** egin zioten tartea eguneroko jardunaz hitz egiteko.



1997ko otsailaren 21eko portada.

Duela 25 urte

NOAUA! 13. zenbakia 1997ko otsailaren 21ean

“Armairu handi batean sartu eta lo egin nuen egun osoan”

Martin Aliri, Aliri baserrian jaio zen orain dela 73 urte. Baserri lanetan aritzen da, baina gazte denboran Salesianosetan lizentziatura atera zuen. Zubietako baserri zaharrenetariko batean bizi da, Alirin, eta bertan museo txiki bat du. Gerra garaiko pistola zaharrak, dokumentu zaharrak, ontziak... Denetik du han Martinek. Horrez gain, Egin egunkariaren ale guztiak ditu jasota, publikatu zenetik gaur arte.

NOAUA! Zer gogoratzen duzu gehien zure haurtzarotik?

Martin Aliri: Txikitan eskolara joaten ginen. Soldaduskara joan bitartean Zubietako eskolan ibili nintzen. Aurreneko maisua Koxme izan genuen, gerra denboran fusilatu zuten tren estazioko nagusiaren semea.

Zerbait gehiago...

Bai, garai batean txerriak hiltzen ziren baserrietan, eta gero, maisuari, erretoreari, albutariari txerri muinak banatzen ibiltzen ginen.

Ikasten kanpoan ere ibili zinen, ezta?

Hamar urterekin Lasartera eramantzen ninduten, Nazionaletara. 11-12 urterekin, berriz, Barzelonara joan nintzen ikastera, Sarriara. Hau 1935-1936an izan zen, eta gerra hasi baino hiru egun lehenago itzuli behar izan nuen, han nazionalak baitzeuden. Horregatik, ondoren, Iruñeako Salesianosetan amaitu nituen ikasketak. Hemen lizentziatu eta soldaduskara joan nintzen.

Zer iruditzen zaizu gaurko gazteria zuen garaikoarekin konparatuta?

Oraingo gazteria askoz ere aurreratuagoa da, irekiagoa. Gu gaztetan zeharo motzak ginen, eskolara isil-isilik joan, etorri eta etxera. Konparaziorik ez dago.

Zubietako festak nola izaten ziren lehen?

Soldaduskara hurrengo urtean joan behar zutenek antolatzen zituzten festak lehen.

Soldaduskan urte asko egin omen zenituen.

Bai, lau urte egin nituen. Gerra ondorenean egin nuen eta denbora guztian Loiolan egon nintzen. Usurbil eta Aginagako jende ugariaren lagun egin nintzen.

Treanean elkarrekin joaten ginen.

Zer-nolako mugimendua zegoen lehen Zubietan?

Nik soldaduska bukatu nuen, igande goizetan pilotan aritzen ginen gero hamaiketako egiteko. Gero, arratsaldean, Lasartera joaten ginen sagardo edatera.

Soldaduska amaitu ondoren baserrian lanean.


Bai, nire jardunik handiena baserria izan da. Ikasketak egin nituen, lizentziatura atera ere bai, baina aitak zenak bat edo beste aukeratzeko esan zidan eta baserria aukeratu nuen.

Ez al zara inoiz aukera horretaz damutu?

Bai horixe. Makina bat aldiz damutu izan naiz. Baserrietik ez dago ondo bizitzerik, baina hemen heldu diot.

Zure seme-alabei ikasketak edo baserria aukeratzeko eman diezu?

Nire seme-alaba guztiak karrera egin dute. Semea perito elektronikoa da, alaba zaharrena eta bigarrena funtzionarioak eta alaba gazteena administratzailea.



Martin Aliri, gaztetako argazki batean.

Parrandak ere egingo zenituen, bada?

Ez, ia bat ere ez. Ni parrandazale txarra izan naiz. Etxetik kanpo behin bakarrik pasa dut gaua. Aginagako Lertxundi baserriko ezkontzen zen. Soldaduskan nengonez, ezkontzara joan eta gero goizeko 7:30ean berriz kuartera. Han armairu handi batean sartu eta lo egin nuen egun osoan, bazkaltzera ere ez nintzen azaldu.

Esan digute pisu berezi bat omen duzula.

Berezia ez dakit, baina etxean dugu oraindik nire amak eguneroko pisuak pisatzen gintuen pisua. Nire seme-alabak han pisatu izan ditut.

Auzolanean egindako girlanda berriak ipiniko dituzte aurtengo Santixabeletan

Udarregi Ikastolako DBH2ko ikasleek ekimen berria jarri dute martxan: 2022ko Santixabeletarako oihalezko girlandak sortzea. Urteroko plastikozko girlanda gorriak iraganeko elementu bilakatu eta birziklatutako materialez egindakoak izango ditu Usurbilek aurrerantzean.

Hondakinak murriztu eta birziklapena sustatzeko Balore Etikoak arloan garatzen ari dira proiektu hau ikasleak, eta ez hori bakarrik, belaunaldien arteko harremana ere sustatzea dute helburu. “Herrigintza ere landu nahi dugu, eta horretarako, herriko hiru jubilatutalde nagusiekin elkarlanean eramango dugu aurrera proiektua”, jakinarazi dute ikasleek. Girlanda berriak sortzeko harremanetan jarri dira DBH2ko ikasleak Gure Pakea elkarteko kideekin, bai eta Santueneko eta Aginagako jubilatutaldeen ere. Udalarekin ere harremanetan jarri dira, behin proiektua amaituta tenkatzeko



Plastikozko girlanda gorriak iraganeko elementu bilakatu eta birziklatutako materialez egindakoak izango ditu Usurbilek aurrerantzean.

DBH2KO IKASLEAK

“Denetarik oihalak bildu nahi ditugu: galtzak, soinekoak, alkandorak...”

baimena izan eta herritarrei baimena eska diezaieten euren balkoietatik zintzilikatzeko.

Oraingoz, plastikozko girlanda zaharrak deuseztu eta birziklatzera bidali dituzte. Ondorengo urratsa, bildutako

oihalak jaso eta girlanda berriak sortzea izango da. Prozesu horretan hartuko dute parte jubilatuek. Oihalak ardazkatuko dituzte haiek, eta prest utziko dituzte DBHko ikasleek tenkatzeko harian kokatu eta Santixabeletarako prestatzeko.

“Denetarik oihalak bildu nahi ditugu”

Oihalak biltzeko kanpaina jada martxan dute ikasleek. “Denetarik oihalak bildu nahi ditu-

gu: galtzak, soinekoak, alkandorak... koloreek ere ez dute axola, bakoitzak nahi duena eman dezake”, esan dute ikasleek. Oihal bilketa irekita egongo da urte osoan zehar. Emauseko “Birsortu” proiektua ere tarteko da. Ekonomia zirkularra indartzeko Emausek garatutako proiektua, soberan duten materiala Gipuzkoako eskolei eskaintzea du helburu, eta proiektu honetan ere ekarpena egingo du.

Oihalak biltzen ari dira ondoko gune hauetan

■ Udarregi Ikastolaren eraikin gorriko erdiko aretoan 8:30 eta 16:30 bitarte.

■ Agerialdeko hiru eraikinetan: HHko arkupean 9:00 eta 16:30 bitartean, LHko frontoi aldera ematen duen sarreran 9:00 eta 16:30 bitarte eta LHko autobusa hartzen den lekuaren sarreran 9:00 eta 16:30 bitarte.

■ Potxoenean 9:00 eta 14:00 bitarte, eta 16:00 eta 19:30 bitarte aste egunetan. Potxoeneako ordutegia ez denez finkoa, 943 371 999 telefono zenbakian lor daiteke informazio gehiago.



Udarregi Ikastolaren eraikin gorriko erdiko aretoan utzi daitezke oihalak, 8:30etik eta 16:30ak bitarte.

Sudokua

Nola esaten diozu ondoko munstro handi honi, HERENSUGE ala DRAGOI? Egia esanda, biak dira onak, baina bigarrenak, sei hizki dituenaz, sudoku honetarako aitzakia eman digu. Beraz, bete itzazu hutsuneak DRAGOI hitza osatzen duten hizkiez (D, R, A, G, O eta I). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

			O		
	O		R	G	
			G		O
	A			D	
D		O			G
	R		D		

Margotu






Zortziko txikia

Aurki itzazu hiru neska-mutilen eta haien islaren artean dauden aldeak. Zortzi dira guztira.



DOMINOAN

Txanogorritxoren dominoak sei elementu hauek ditu: Amonaren etxola, ehiztariaren eskopeta, saskia, otsoa, basoa eta Txanogorritxo. Aipatutako elementuok marraztuz, bete itzazu hutsuneak domino zatiak zentzua izan dezan.





Itzala



Hona hemen Maripurtzil eta Pelloziri otsoz eta Txanogorritxo mozorrotuta, hurrenez hurren. Aurki ezazu itzal zuzena, eta bide batez, margo itzazu gure bi lagun bihurriak.



ALFABETOA



Bide batez, eman kolorea irudi hauei ere.

Mezua

Konturatuko zinen bezala, orrietako jolasen gaiak liburu oso ezagunetatik hartuak dira. Hemen ezkutuan dagoena ere istorio ospetsu baten izenburua da, eta Mariasun Landak idatzia da. Jarri marrazki bakoitzaren azpian bere hizkia eta agertuko zaizu. Erabili irudi-alfabetoa.



ETA NI EZ AL NAU INORK GOGOAN?



Joxe Manuel 'Ikutza'-ri omenaldi beroa egin zioten Aitzaga Elkartekoek

Iaz moto istripu batean hil izan ez balitz, Joxe Manuel 'Ikutza'-k 54 urte beteko zituen otsailaren 12an. Egun seinatua, hainbat eta hainbat lagunek gogoan izan zuten Sutegin egin zioten omenaldian.

Aitzaga Elkarteko kideek eta dardozeleek omenaldi beroa eskaini zioten 'Ikutza'-ri. Goizean, Burma Road txapelketa osatu zuten. Ia bi ordu iraun zuen txapelketaren ondoren, lau irabazle atera ziren, tartean usurbildar bat.

Burma Road txapelketa amaitu berrikan, omenaldi berezia egin zioten Joxe Manueli. Bertsokak abestu zizkioten, trikitixa doinuek berotu zuten Sutegiko kanpoaldea eta lore-sorta ederra eskaini zieten senitartekoei. Amaitzeko,



Sutegin egin zioten omenaldian lore-sorta bat eman zieten senitartekoei.

topa egin zuten denek Ikutzaren omenez.

Patri jatetxean bapo bazkaldu

ondoren, binakako txapelketa egin zuten Sutegiko erakusketa aretoan. Ordu luzez aritu ziren

jokatzen dardozeleak, eta hala eman zioten amaiera omenaldi egun bereziari.



Dardo jokoan artista zen 'Ikutza'. Pasa den larunbatean txapelketa ezberdinak antolatutako Sutegiko erakusketa aretoan.



Aginaga eta Usurbilgo kristau elkarteak

Usurbildar agurgarria. Usurbilgo kristau-elkartearen ize-nean idazten dizugu.

Erromako Gotzain Frantziskok abiarazi duen gogoe-ta zabal batean hartu nahi dugu parte eta, bidez, herriko kristau-elkarteko kideok nondik nora jo beharko genukeen elkarrekin aztertu eta, hausnartu ondoren, hainbat erabaki hartu herritar orori, fededun izan ala ez, hobeto laguntzeko.

Zuetako batzuk gure plan-teamendu hau lekuz kanpo dagoela pentsatuko duzue, beste hainbatek gure barne arazo dela esango; baina, jakizue, guretzat, Usurbilgo kristauentzat oso garrantzitsua dela zure iritzia.

Gizarteari irekia eta gizartearekin elkarlanean diharduen elkarte izan nahi dugu, eta, horretan ahalegintzen ari gara azken hamarkadetan, bai parroketara zerbait eskatuz hurbiltzen direnei gure zerbitzua eskainiz edo-eta bidea egiten lagunduz, baita herri mailako ekintzetan parte hartuz ere -zenbaitetan elkar-te gisa, besteetan norbanako kristau konprometitu eran-.

Bide honetan urrats bat

Kax-kax... zure iritzia axola digu



Utz dezakezu zure ekarpena parroketako buzoietan edo ondoko posta elektronikoa bidez helarazi: salbatoreparrokia@gmail.com

AGINAGA ETA USURBILGO KRISTAU ELKARTEAK

“Urrats bat gehiago eman nahi dugu, gauzatu nahi dugun gogoetan eta, ondorioz, hartuko ditugun erabakietan, zure iritzia, eskakizuna, kontuan hartu nahi dugu”

gehiago eman nahi dugu, gauzatu nahi dugun gogoetan eta, ondorioz, hartuko ditugun erabakietan, zure iritzia, es-

kakizuna, kontuan hartu nahi dugu. Horregatik ausartu gara lerro hauek idaztera eta ondoko galderak zuri zuzentzera:

1. Zer eskatzen diozu eliza katolikoari?
2. Zer herriko kristau-elkar-teei?
3. Zer egingo zenuke herriko gainerako elkarte zein instituzioekin elkarlana indartu ahal izateko?
4. Zer indartu edo zeri ekin behar zaio pauso hauek emateko?
5. Eta, nola gauzatuko zenuke?

Utz dezakezu zure ekarpena parroketako buzoietan edo ondoko posta elektronikoa bidez helarazi: salbatoreparrokia@gmail.com

Eskerrik asko lerro hauek irakurtzeari eskaini dizun denboragatik eta zure ekarpenengatik.

Guztion arteko eliza denontzat:

<https://www.youtube.com/watch?v=Qpo52MkIc40>

Agiñako Asisko San Frantzisko eta Salvatore parroketako kristau elkarteetako kideak

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI!
650 31 31 91 USURBIL

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Orbeldi Dantza Taldea: “Jendea plazara bueltatzea nahi dugu”

Aspaldi plazan dantza egiteko aukerarik ez da izan “eta orain badirudi horretarako aukera izango dugula, aurrera beraz!”, adierazi digute pozarren Orbeldi dantza taldekoek. Plazara itzuliko baitira aspaldiko partez, duela bi urtetik murgilduak garen osasun krisialdiaren ostean. Sutegin, Oiardo kiroldegian edota Artzabalen ere zenbait emanaldi eskaini izan badituzte ere, 2020ko otsailan ikusi genituen azkeneko kalejiran, Usurbilen ospatu genuen azken Inauteri Festan hain zuzen.

Eta astebete barru, “duela bi urtetik ospatu ez ditugun Inauterietan hasitako ohitura berreskuratuko dugu”. Mozorro festari harrera egiteko Euskal Herriko beste txoko batzuetako inauteri giroa ekarri izan digute; oraingoan, Uztaritzeko dantzak plazaratuko dituzte otsailaren 25ean iluntzeko 19:00etan Oiardo Kiroldigitik hasita. Artzabal, NOAUA! Kultur Elkartearen egoitza ondoan itxuraz berritu duten Sagardo plaza, Mikel Laboa plaza eta frontoia lotuko ditu kalejirak. Gune guztiotan dantza saioak eskainiko dituzte. Hitzorduak pilotalekuan izango duen



Uztaritzeko dantzak plazaratuko dituzte otsailaren 25ean ostirala, iluntzeko 19:00etan Oiardo kiroldegitik abiatuta.

ORBELDI DANTZA TALDEA

“Duela bi urtetik ospatu ez ditugun Inauterietan hasitako ohitura berreskuratuko dugu”

amaieran “jendeak dantzatzu parte hartzeko aukera izango du”, iragarri dute Orbelditik.

Otsailaren 26an aldiz, gattetxoan bildu nahi ditu Orbeldik. Oholtza bat egokituko dute frontoian. “Dantza batzuk sortuko ditugu haurrekin eta haiek oholtzan direla gero jendearekin batera dantzatzuko ditugu”, eguerdiko 12:30ean hasita. Hortxe beraz parte hartzeko gonbita. “Herrian mo-

zorrotuta dabiltzanak gurekin dantza egitera animatu nahi ditugu”. Haur, gazte zein heldu. “Denok batera gauzak egitea berreskuratzea nahi genuke”, adierazi dute Orbelditik. Eta dantzan bada, hobe noski.

Dantza Eguna prestatzen

Inauteri Festatik haratago ere begira dira Orbeldiko kideak. Dantza batean datorkigu eta udaberria. Egutegia eskuartean hartuta, “Korrika Usurbildik igaro eta Donostian amaitu arteko tartean”, apirilaren 9an ospatuko dute Dantza Eguna, “ikusteko nahiz parte hartzeko” hitzorduekin. Herriko antzezle nahiz musikariekin

ontzen ari diren ikuskizun berria plazaratuko dute, “aurten hamargarrena tokatzen da”. Bazkari ireki handi bat egitekotan dira. Eta iaz estreinatutako tranpaldo irekia berriz antolatzekotan dira, “nahi duen herritar orori bere dantza erakusteko plaza” eskainiko diote. Orbeldik jarriko dizkio baliabideak. “Etxean koreografiak prestatzen hasi”, luzatu dute gonbita. Beste bi hitzordu ere iragarri ditu Orbeldik; apirilaren 30ean herri ezberdinetako dantzarien topaketa eta maiatzaren 7an Dantzari Txiki Eguna, hiru egun aurten “bakoitzari protagonismo berezi bat” emateko.

Inauteriak ate joka

Otsailak 25, ostirala

Uztaritzeko Inauteriak dantzan:

■ 19:00 Kalejira Oiardo kiroldegitik abiatuta.

■ 20:00 Azken emanaldia Usurbilgo frontoian.

Otsailak 26, larunbata

■ 12:30 Orbeldirekin dantza frontoian. Mozorrota eta etorri dantzara!

■ 12:30-14:00 Joaldunak kalean zehar.

■ Eguerdiko partean, “Romanaren torradak” salgai plazan.

■ 18:00 Burrunbazale txarangarekin kalejira. Ez galdu kalejira!

■ 20:00 Txarangarekin batera dantza saioa Mikel Laboa plazan.

Antolatzaileak: NOAUA!, Orbeldi, Usurbil 1936 elkarte.

Piñata tailerra Santuenean

Ostiral honetan piñata tailerra antolatu dute Santuenean haurrentzat. Ludotekan egingo dute ekimena, eta izena eman beharko da otsailaren 17a baino lehen santueneaguretxikiak@gmail.com helbidean.

Otsailak 18 ostirala

■ Izen emateak 2 euro balioko ditu familia bakoitzeko.



Santueneko ludotekan batuko dira.

Inauteri Jaian, “Romanaren torrada”

Inauteri Festa egunean, sabela pozteko aukera eskainiko digute oroimen historikoa berreskuratzearen alde lanean diharduen Usurbil 1936 elkarteak. “Romanaren torrada mun-di-a-lak!” eta egin berriak salgai jarriko dituzte otsailaren 26ean, eguerdi partean plazan.

Torrada bakoitza 1,50 euroren truke, 5 torrada 6 eurotan. Bildutako laguntza Usurbil 1936 elkarteak dituen gastuei aurre egiteko baliatuko dute. Apropos hautatu dute plazan salgai jarriko duten elikagaia eta jatekoaren izena. “Garaiko postrea da. Romanaren torrada izendatu ditugu, Romana Zubiria frankistek exekutatu zuten aginagarraren oroimenez”, aipatu herri bilgunitik NOAUA!ri azaldu diotenez.

36ko gerran eraila

Eta nor zen torrada izena jarri dioten herritarra? Usurbil 1936 elkartetik argitu dutenez, Aginagan jaio eta hazi zen Romana Zubiria Urruzmendi. Donostiara joan zen bizitzera Eusebio Larzabal añorgarrarekin ezkondu ostean. Hiru se-



Usurbil 1936 elkarteak bere omenez izendatu ditu Inauteri Jaian salgai jarriko duten jakia; “Romanaren torrada”.

GARAICO POSTREA

Torrada bakoitza 1,50 euroren truke, 5 torrada 6 eurotan. Bildutako laguntza Usurbil 1936 elkarteak dituen gastuei aurre egiteko baliatuko dute

me-alaben ama, Loiola auzoa zuen bizileku eta baratzean lantzen zituen produktuak Groseko azokan saltzen aritzen zen. 1936ko gerra hasitakoan,

aipatu herri bilgunitik gogorazi dutenez, “frankistek bere senarra eraman zuten etxetik seme zaharrenarekin zegoela. Romana etxera itzuli zenean aita non zegoen galdetu zion semeari”. Semeak erantzun zionez, “bi gizon etorri dira eta eraman egin dute”. Senarraren arrastoaren bila atera eta Romana ere ez zen etxeratu berriz. “1936ko irailaren 26an biak exekutatu zituzten. Hori da senideek dakiten gauza bakarra. Romanak 45 urte zituen. Beren gorpuak ez dira inoiz aurkitu”.

Usurbil 1936 elkarteak bere omenez izendatu ditu Inauteri Festan salgai jarriko duten jakia; “Romanaren torrada”. Ospakizun honetan hain ohikoa eta aspaldidanikoa den postre hau Romanak “oso modu goxoan prestatuko zuelako”. Romanaren 94 urteko bere alaba Maria Luisa bizirik da eta Usurbil 1936 elkarteari kontatua dionez, familiaz eta baratzeke lanez arduratzeaz gain, Loiolako taberna bateko sukaldari laguntzailea omen zen. “Ama oso sukaldari ona zen”.

Bizitza plataformak herrian talde bat sortzeko deia

Bizitza plataformak antolatuta, aurretiaz grabatutako elkarrizketa bat eskaini zuten Sutegein ostiral arratsaldean, Europar Batasunaren eredu ekonomikoaren gainean.

Dozena erdi bat herritar elkartu ziren Kultur Etxean, eta bideoa ikusteaz gain, herrian talde bat sortzeko proposamena luzatu zuten. Honen harira, bilera berri baterako deia egin dute.

Ostiral honetan, Potxoenean Datorren ostiralerako, otsailaren 18rako jarri dute hitzordua arratsaldeko 18:00etan, Potxoenean. Pandemiak eztanda egin duenetik, ideia batzuk

azaltzea gizartean gaizki ikusita dagoela adieraziz, antzeko ikuspegia duten pertsonak elkartuko dituen taldea izango litzateke sortu nahi dutena.

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

LEINA PULIDA
CRISTALDEGIA

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak · beira bikoitza
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

UEMaren udaleku ibiltarian izena emateko epeak zabalik segitzen du

Udalerri euskaldunetako gazteentzako udalekuak ekainaren 27tik uztailearen 3ra izango dira aurten, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea, martxoaren 31 arte.

UEMAk antolatutako ekimena ibiltaria izango da. 50 laguneko bi zutabe abiatuko dira. Bat Tolosatik, eta bestea Etxarri Aranaztik, eta laugarren egunean Leitzan elkartuko dira bi zutabeak. "Udalerri euskaldunetako gazteak euskararen inguruan sentsibilizatzea, kontzientziaztea eta eragile aktibo bihurtzea da udalekuen helburua", UEMatik aditzera eman dutenez.

Aurten, plaza kopuru bikoitza laz gazte askok eman zuten izena, eta asko kanpoan geratu zirenez, aurten parte-hartzaileen kopurua bikoiztea erabaki du UEMAK.

Begiraleak eta sukaldariak behar dira udalekurako Ekainaren 27tik uztailearen 3ra UEMAK antolatutako udaleku ibiltarian 14-18 urte bitarteko gazteekin lan egiteko aisialdiko begiraleak eta sukaldariak behar dira. Bidali curriculumak arnaguneak@uema.eus helbide elektronikora martxoaren 4a (ostirala) baino lehen. Ondorengo jakintzak balartuko dira:



"Salto" udalekuak ekainaren 27tik uztailearen 3ra egingo dira eta izena emateko epea zabalik da jada.

- Begirale titulua izatea.
- EGA edo bere baliokidea.
- Hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak izatea edo burutzen egotea.
- Lan eskarmentua antzeko lanetan.
- Euskararekiko sentsibilizazioa.
- Taldean lan egiteko erraztasuna.

Oriako Jaitsiera

28. Oriaren Traineru Jaitsiera antolatu dute larunbaterako. Ohi bezala Aginagako Mapil eta Saikola izango ditu abiapuntu, besteak beste Euskal Herriko nahiz Mediterraneo itsasoko arraunlariak bilduko dituen kirol proba honek.

Otsailak 19, larunbata

- 16:00 28. Oriaren Traineru Jaitsiera Aginagatik Oriara.
- Ibilbideak: 6 kilometrokoa Mapiletik Oriara eta 4 kilometrokoa Saikolatik Oriara.

Binakako Master Laboral Kutxa txapelketa

Otsailak 27 igandea, Segura Leire Garai-Miriam Arrillaga Madalen Etxegarai-Uxue Osés

Plazan Bazan, 10/11 orrialdeetako soluzioak

SUDOKUA

Nola esaten diezu endoko muntstro handi hani, HERENSUGE ala DRAGOI? Egia esanda, biak diru onak, baina bigarnerak, sei hizki dituzenez, sudoku honetarako aitzakia eman digu. Bazan, bete itzazu hutsuneak DRAGOI hitza osatzen duten hizkiez (D, R, A, G, O eta I). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

R	G	D	O	I	A
A	O	I	R	G	D
I	D	R	G	A	O
O	A	G	I	D	R
D	I	O	A	R	G
G	R	A	D	O	I

Margotu

DOMINOAN

Txanogorritxoren dominoak sei elementu hauek ditu: Amonaren etxola, ehiztarianen eskopeta, saskia, otsoa, basoa eta Txanogorritxo. Aipatutako elementuok marraztuz, bete itzazu hutsuneak domino zatiake zentzua izan dezan.

ZORTZIKO TXIKIA

Aurki itzazu hiru neska-mutilen eta haien islarren artean dauden aldeak. Zertzi dira gutztira.

Itzala

Hona hemen Mariipurtzil eta Pelloziri otsoz eta Txanogorritxo zorroztorotuta, hurrenez hurren. Aurki ezazu itzal zuzena, eta bide batez, margo itzazu gure bi lagun bihurriak.

MEZUA

Kenturaturako zinen bezala, orrietako jolosen gaiak liburu oso ezagunetatik hartuak dira. Hemen ezkutuan dagoena ere istorio ospetsu baten izenburua da, eta Mariasun Landak idatzia da. Jarri marrozki bakoitzaren azpian bere hizkia eta agertuko zaizu. Erabili irudi-alfabetoa.

Bide batez, eman kolorea irudi hauei ere.

ALFABETO: A B C D E F G H I J K L M N O P Q R S T U V W X Y Z a b c d e f g h i j k l m n o p q r s t u v w x y z

K R O K O D I L O A

O H E A Z P I A N

ETA NI EZ AL NAU INORK GOGOAN?

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trasteleku, balkoia eta terraza. 688 710 916.

Alokairuan

Etxe bat alokairuan kaxkoan. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela eta igogailuarekin. 656783227

Bi logeletako etxebizitza alokatzen dut Usurbilen. 750 euro hilabetean, maskotarik ez da onartzen. 647 58 72 58

San Esteban kalean (Etxealdia) 31m²ko lokal bat alokairuan. Masajeak emateko edo estetikaz zerbitzuak emateko prestatuta dago. 655735715.

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentea da, urriaren 30erako beharko nuke. 605 142 943.

Neska kaudimenduna, masakotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. Interesatuok, hona deitu: 625701616.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Garbitzailea behar da Aginaga

sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jatetxean. 666 671 444

Zaintzaile bat behar dugu, eguneko lau ordu, Eusko Jaur-laritzaren zaharrak zaintzeko titulua duena eta euskalduna dena. 943 000 333.

Zerbitzaria behar da Artzabal-en, barra, eguneko menua eta kartarako. 3 astetik behin asteburua jai. 30 orduko lanaldia. 943 36 91 39.

Olarondo jatetxean zerbitzaria behar dute astebukaerarako. Egurdian lan egiteko. 626 686 036.

Txapeldun jatetxean zerbitzariak behar ditugu jangela eta barrarako. Euskalduna izatea baloratu da. 669 527 452.

Zerbitzari bila gabiltza Agina-

ga sagardotegian. 943366710 edo 943370668.

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Goizetan bulegoak eta etxeak garbitzeko, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko eskaintzen naiz. Erreferentzia oso onak dauzkatz. Nere zenbakia: 688715958

Emakume arduratsua orduka edo egun osoz, etxeko lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

Emakume arduratsua orduka

edo egun osoz, etxeko lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

Interna moduan edo orduka pertsonen zaintzan lan egingo lukeen neska bat naiz. Mugitzeko aukera dut. 643154392

Adinekoak eta haurrak zaintzak edota etxeko garbiketarako eskaintzen naiz. Esperientzia eta gomendio onak ditut 602568090.

BESTELAKOAK

Abenduaren 19an larruzko eskularru marroi bat (barrutik larru txuria duena) galdu genuen Harane futbol zelaietan. Aurkitu baduzu deitu 685725681

Txerriak salgai. Apote bat eta 9 zerrama dauzkagu salgai. 6/7 hilabetetako 5 txerrikume ere bai. Interesatzen bazaizu deitu 607 668 603 (Joxe Cruz)

**Zorionak lara!**

3 muxu potolo etxekoen partez. Maite zaitugu.

**Zorionak Unax eta Malen!**

Jada 6 urte beteko dituzue otsailaren 24an. Ederki ospatuko dugu familia eta lagunekin. Aitaxo eta amatxo.

Heriotzak

Dolores Zubeldia Iribar
Otsailaren 7an hil zen,
98 urterekin.



Goardiako farmaziak

Osteguna 17 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 18 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 19 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 20 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Astlehena 21 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteartea 22 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteazkena 23 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Futbol partidak**Haranen**

Otsailak 19, larunbata

■ 10:00 Infantil mutilak:

-Udarregi Usurbil FT "A"

-Danena KE

■ 11:30 Infantil mutilak:

-Udarregi Usurbil FT "B"

-Urnieta KE

■ 13:00 Kadete mutilak:

-Usurbil FT "B"

-Arrupe Chaminade CD "C"

■ 15:30 Erregionalak:

Usurbil FT-Beti Gazte KJKE

■ 17:45 Preferenteak:

Usurbil FT-Tolosa CF

Otsailak 20, igandea

■ 15:30 Preferente neskek:

-Usurbil FT

-Zestoa KB

Eskubaloi partidak**Kiroldegian**

Otsailak 19, larunbata

■ 16:00 Kadete neskek

Federazioko garaikurra:

Usurbil K.E-Aiala B ZKE

■ 17:45etan Jubenil mutilak

Euskal Liga:

Usurbil K.E-Urdaneta

Pilota partidak**Usurbilen**

Otsailak 18, ostirala

■ 18:30 Infantil 2. Mailako

pilota partida:

-Pagazpe 2

(Ibarreta-Zabaleta)

-Oiarpe 2

Osteguna 24 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 25 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 26 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 27 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Agenda otsaila

17 osteguna

- **Beterri Saretuz-en jardunaldia.** 09:30-12:00 udaletxeko areto nagusian.
- **Hitzaldia: "Euskara eta natura txirikordatz: Usurbilen".** 19:00etan Sutegin.

18 ostirala

- **Piñata ikastaroa Santuenean, ludotekan.** Izen ematea, otsailaren 17a baino lehen santueneaguretxikiak@gmail.com helbidean.
- **Bizitza plataforma eratzeko deialdia.** 18:00etan Potxoenean.

19 larunbata

- **Oriaren Traineru Jaitsiera Aginagatik Oriora.** 16:00etan, Aginagako Mapil eta Saikolatik.
- **Kontzertuak Aginagan: Maddi-Elene eta Odolaren Mintzoa.** 22:30ean Aginagako Eliza Zaharrean.

Maddi, Elene eta Odolaren Mintzoa Aginagako Eliza Zaharrean

Doinu eta hitzetan jauzi kualitativoa emanda bueltan datoz Jokin Irastorza, Beñat eta Joanes Txueka eta Luken Arkarazo. Lau urteko isiltasuna apurtuz, "Hauskor" izeneko disko berria aurkeztu berri dute. Lehen kontzertua larunbat honetan eskainiko dute, Aginagako Eliza Zaharrean.



Odolaren Mintzoa taldeak 'Hauskor' diskoa aurkeztuko du. Argazkia: Ibai Arrieta.

Otsailak 19, larunbata

- 22:30 Aginagako Eliza Zaharrean: Maddi&Elene eta Odolaren Mintzoa.
- Sarrerak aurrez eskura daitezke usurbilkultura.eus plataforman.

bilkultura.eus plataforman.

- Antolatzailea: Eliza Zaharra elkargunea.

Beterri Saretuz ekimenaren bilkura Usurbilgo udaletxean

Beterri Saretuz ekimenak parte-hartzean oinarrituriko enpresen ekosistema sortzeko xedea du. Aurtengo helburuak eta ekintzak aurkeztuko dituzte ostegunean udaletxeko pleno aretoan.

Otsailak 17 osteguna

- 09:30-12:00 Udaletxean.
- Izena eman behar da alde zurretik: beterrisaretuz@gmail.com

"Euskara eta natura txirikordatz: Usurbilen"

Naturak ahozketasunean utzi duen arrastoan oinarrituko da hitzaldiaren lehenengo zatia. Ondoren bi autoreek kaleratu berri duten lana aurkeztuko dute: 'Gure faunari eta florari begira'. Amaieran, solasaldia.

Otsailak 17 osteguna

- 19:00 Sutegin.
- Hizlariak: Iñaki Sanz-Azkue, Eñaut Agirre.
- Izen ematea: usurbilkultura.eus

Datozenak

Inauteri Jaia, begi-bistan

Iaz ez zen modurik izan, aurten ordea bueltan datorkigu Inauteri Festa plaza-ora. Oraindik ez guztiz ospatu nahiko genukeen moduan, baina girotzetik ez da faltako herrian.

Otsailak 25, ostirala, Inauteri dantzak

- Orbeldi Dantza Taldekoekin, Uzta-ritzeko Iñauteriak dantzan:
- 19:00 Kalejira Oiardo Kiroldegitik abiatuta.
- 20:00 Dantzak frontoian.

Otsailak 26, larunbata, Inauteri Festa

- 12:30 Orbeldirekin dantza frontoian. Mozorrotu eta etorri dantzara!
- 12:30-14:00 Joaldunak kalean zehar.
- 18:00 Burrunbazale txarangarekin kalejira. Mozorrotuta, karroza hartu eta gorputza astintzeko gogoz bazau- de ez galdu kalejira!
- 20:00 Txarangarekin batera 'Gora Inauteriak' dantza saioa Mikel Laboa plazan.
- Antolatzaileak: NOAUA! Kultur Elkarte eta Orbeldi Dantza Taldea.

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA • IZURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

txirriStra
TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

GAR
GRUPO MONROY
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK
943 53 72 38
628 45 78 39 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com
KALE NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

OSASUN GIDA 2022



USURBIL OPTIKA

Bigarren lente pareta doan:
lente progresiboetan,
irakurtzeko lenteetan
eta ikus-urrunekeo lenteetan

2. lente pareta doan

2x1

PROGRESIBOETAN
IRAKURTZEKOETAN
IKUS-URRUNEKOETAN

Zubiaurrenea, 10

943 370 269 • 675 708 654



Iturraldebotika

Tomas Iturralde botika

33/22 PEZ

- Dosifikazio sistema pertsonalizatua
- Dermofarmazia
- Produktu homeopatikokoak
- Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO
RPS: 28/17



Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

zenta

ORTOPEDIA BAT BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure
autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen salmenta eta alokairua.
- Etxez-etxeko zerbitzu tekniko espezializatua.
- Etxebizitzaren egokitzapena.

www.zenta.es

Osakidetzarekin
hitzarmena

Errekalde 59, Donostia 943 105 205

Kim

MASAJE LEKUA

• Kirol eta terapeutiko masajeak

Txirrindulariaren azterketa
biomekanikoa

943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

943 11 09 54

etorri zaitez zure oinen eta posturaren
azterketa bat egitera!

sustraitu osasuna oinetatik

IÑAUTERIAK 2022

OTSAILAK 25-26 USURBIL

mozorrotu zaitez!

OSTIRALA

ORBELDIREKIN, Uztaritzeko
Iñauteriak dantzan

19:00 kalejira

Kiroldegitik abiatuta

20:00 dantzak
frontoian.

LARUNBATA

12:30 frontoian,
ORBELDIREKIN DANTZA!!!!
Mozorrotu eta etorri
dantzara!!!

12:30 - 14:00

JOALDUNAK kalean zehar

18:00 BURRUNBAZALE
txarangarekin kalejira.

(Mozorrotuta, karroza hartu eta gorputza
astintzeko gogoz bazaude ez galdu
kalejira!!!)

20:00 Mikel Laboa plazan,
txarangarekin batera

GORA IÑAUTERIAK DATZA SAIOA!!